

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	LEHERKETETAKO ERAGIKETA OSAGARRIAK	Iraupena	50
Kodea	MF0855_1		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meatzaritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako eragiketa osagarriak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Indusketako eta kargako eragiketa osagarriak	Iraupena	80
	Euspeneko eragiketa osagarriak		80
	Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako garraioko eragiketa osagarriak		80
	Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako arriskuen prebentzioa (zeharkakoa)		50
	Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako eragiketa osagarrietako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0855_1 LEHERKETETAKO ERAGIKETA OSAGARRIAK EGITEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Leherketa-mota desberdinetan erabilitako ekipamenduak, materialak eta erremintak ez ezik babes individual eta kolektiboko ekipamenduak eta leherketaren seinaleztapeneko oinarriko elementu espezifikoak ere identifikatzea, lehergaien araudian eta aire zabaleko eta lurpeko leherketei aplikatu dakizkiekeen gainerako segurtasun-arau eta -xedapenetan ezartzen denaren arabera.

E1.1 Aire zabaleko eta lurpeko leherketen arrisku espezifikoak deskribatzea, dagozkion prebentzio-neurriekin lotuta.

E1.2 Barrena-zuloak manipulaterakoan, banatzerakoan, kargatzerakoan eta galkatzerakoan derrigorrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak identifikatzea, eragiketa horietan dauden arriskuak lotuta.

E1.3 Leherketa-eremuan erabili beharreko seinaleztapen-ekipamenduak eta -elementuak identifikatzea, tipologiaren arabera, haiek erabiltzeko baldintzak ezagutuz.

E1.4 Lehergai bidez egindako leherketetako eragiketek ingurumenean eragin ditzaketen arriskuak ezagutzea; horretarako, ingurumena babesteko kasu bakoitzean hartu behar diren babes-neurriak adieraziko dira.

E1.5 Lan-eremua ordenan eta garbi edukitzeko baldintzak ezagutzea, leherketen segurtasunarekin eta eraginkortasunarekin lotuta.

E1.6 Leherketetan normalean erabiltzen diren materialak, ekipamenduak eta erremintak identifikatzea, haien funtzioa eta ezaugarriak adieraziz.

E1.7 Aire zabaleko leherketaren egoera espezifiko batean:

- Lan- eta ingurumen-arloko arriskuak eta hartu beharreko segurtasun-neurriak deskribatzea.
- Adierazitako babes kolektiboko baliabideak jartzea.
- Norbera babesteko baliabideak aukeratzea eta erabiltzea.
- Leherketa-eremua seinaleztatzea jasotako aginduen arabera.
- Adierazitako materialak, lanabesak eta erremintak prestatzea.
- Lan-eremua garbitzea eta atontzea.
- Barrena-zuloak jasotako aginduen arabera garbitzea.

E1.8 Lurpeko leherketa-egoera espezifiko batean:

- Lan- eta ingurumen-arloko arriskuak eta hartu beharreko segurtasun-neurriak deskribatzea.
- Adierazitako babes kolektiboko baliabideak jartzea.
- Norbera babesteko baliabideak aukeratzea eta erabiltzea.
- Leherketa-eremua seinaleztatzea jasotako aginduen arabera.
- Adierazitako materialak, lanabesak eta erremintak prestatzea.
- Lan-eremua garbitzea eta atontzea.
- Barrena-zuloak jasotako aginduen arabera garbitzea.

A2: Prozedurak aplikatzea lehergaiak eta material osagarria deskargatzen eta banatzen laguntzeko, indarreko araudiaren eta aire zabaleko eta lurpeko indusketetan aplikatu daitezkeen gainerako arauen eta segurtasun-xedapenen arabera.

E12.1 Aire zabaleko eta lurpeko indusketetan normalean erabiltzen diren lehergaiak eta hastapen-sistemak identifikatzea, haien ezaugarri nagusiak ezagutuz.

E12.2 Lehergaien garraioari eta manipulazioari eta hastapen-sistemei buruzko segurtasun-neurriak aipatzea, betiere indarreko araudiaren arabera.

EI2.3 Lehergaien manipulazioan eta hastapen-sistemetan osasunerako dauden arrisku ohikoenak identifikatzea.

EI2.4 Lehergaien manipulazioan eta hastapen-sistemetan aplikatu beharreko prebentzio-neurriak zerrendatzea.

EI2.5 Lehergaiak deskargatzeko egoera espezifiko batean:

- Lehergaiak deskargatzeko eremua garbitzea eta egokitzea; horretarako, garraioak behar bezala jartzea eragotz dezaketen trabak kenduko dira.
- Lehergaiak eta hastapen-sistemak ibilgailuetatik edo erabilitako ontzietatik deskargatzea jasotako aginduei jarraikiz.
- Lehergaiak eta hastapen-sistemak leherketa osatzen duten barrena-zuloetan banatzen laguntzea.

A3: Lehergaiak kargatzeko eta galkatzeko eragiketetan laguntzeko prozedurak aplikatzea lehergaiak erabiltzeari buruz indarrean dagoen araudiaren eta aire zabaleko eta lurpeko ustiapenetan aplika daitezkeen gainerako segurtasun-arauen eta -xedapenen arabera.

EI3.1 Barrena-zuloak kargatzeko eta galkatzeko eragiketetan normalean erabiltzen diren erremintak eta lanabesak identifikatzea, haien aplikazioa ezagutuz.

EI3.2 Galkatzeko egokiak diren materialak identifikatzea, haien aplikazioa ezagutuz.

EI3.3 Barrena-zuloak kargatzeko eta galkatzeko eragiketa ohikoenak deskribatzea, egikaritze-ordena identifikatuz.

EI3.4 Barrena-zuloak garbitzeko metodo ohikoenak deskribatzea, horien arriskuak, helburua eta egikaritzeko modua adieraziz.

EI3.5 Leherketa bat kargatzeko eta galkatzeko egoera espezifiko batean:

- Barrena-zuloen garbiketa egitea agindutakoaren arabera.
- Barrena-zuloak kargatzeko eta galkatzeko erremintak eta lanabesak prestatzea.
- Barrena-zuloak galkatzeko materiala prestatzea.
- Barrena-zuloak galkatzeko eragiketa egitea.
- Lan-eremua tiroa bota aurretik garbitzea eta atontzea.

Edukiak

1. Aire zabaleko eta lurpeko leherketetako arrisku espezifikoak.

- Lehergaien manipulazioan, garraioan, kargan, galkatzean eta biltegitratzean dauden arriskuak.
- Norbera babesteko ekipak.
- Babes kolektiboko ekipamenduak.
- Lehergaien lan- eta ingurumen-eremuko arrisku espezifikoak eta hartu beharreko prebentzio-neurriak identifikatzea.
- Barrena-zuloak jasotako aginduen arabera garbitzea.
- Seinaleztapena eta zaintza:
 - Seinaleztapen-elementuak.
 - Seinaleztapen-elementuen antolamendua.
 - Leherketa-eremua seinaleztatzea jasotako aginduen arabera.
- Ingurumen-eremuko arriskuak: hartu beharreko neurriak.

2. Lehergaiak eta leherketa-osagarriak.

- Lehergailuaren definizioa. Abiarazlearen definizioa.
- Lehergai industrialen mota nagusiak.
- Hastapen-sistemak. Motak: elektrikoak, ez-elektrikoak eta elektronikoak.
- Osagarrien, ekipamenduen eta erreminten maneia:
 - Konexioak eta isolagailuak.
 - Ohmetroak.
 - Leherketa elektrikoetarako lehertzailak.
 - Transmisio-hodiaren abiarazlea eta metxero homologatua.
 - Puntzoiak, matxardatxoak, galkamakilak, zinta itsaskorra, hortza.
 - Omega hodiak eta hegats-obturadoreak.
 - Konexio-hodiak.
 - Soltean kargatzeko makina.
 - Buztinezko, gatzeko takoak.

3. Leherketetako eragiketa osagarriak.

- Lehergaien eta abiarazte-sistemen garraioa eta biltegitratzea:
 - Baimendutako ibilgailuak.
 - Minibolborategiak.
 - Biltegitratze-arauak.
 - Lehergaien banaketa: ontziak edo bizkar-zorroak eta banaketa-arauak.
 - Lehergaien eta abiarazleen garraioa simulatua.
- Barrena-zuloen karga, galkatzea eta garbiketa:
 - Galkatzeko materialak eta erremintak.
 - Galkatze-prozedura.

- Barrena-zuloak garbitzeko metodoak eta elementuak.
 - Tiroko eta mozketetako eskema desberdinak.
 - Modu simulatua egitea (lehegairik gabe): Barrena-zuloen kargatzea, galkatzea eta garbiketa tiroko eta mozketako hainbat eskemarekin.
 - Leherketaren produktuak: arroken proiektzioak, gasak, zaratak, bibrazioak, hautsa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako eragiketa osagarriak.